



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2021

SEGURTASUNA

1. Joko patologikoari buruzko informazio- eta prebentzio-jarduerak egiteko diru-laguntzak 2



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Joko patologikoari buruzko informazio- eta prebentzio-jarduerak egiteko diru-laguntzak

2.- Araua

AGINDUA, 2021eko uztailaren 29koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Segurtasuneko sailburuarena, 2021eko ekitaldian EAEn irabazi-asmorik gabeko erakundeek joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzen emakida arautzen eta iragartzen duena

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAri Hiperesteka)

Programaren araua:

[2104665e.pdf \(euskadi.eus\)](#)

Deialdia:

2021ko ekitaldian EAEn irabazi-asmorik gabeko elkarteek joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzen emakida arautzen eta iragartzen duen deialdia.
- Eusko Jaurlaritza (euskadi.eus)

Emate-ebazpena:

EBAZPENA, 2021eko azaroaren 19koa, Segurtasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez dirulaguntzak ematen baitzaizkie irabazi-asmorik gabeko erakundeei joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko. - Eusko Jaurlaritza - Euskadi.eus

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburu estrategikoa: ludopatiaren prebentzio eta tratamendu psikosozialeko programak garatzea.

Helburua: Prebentzio-programak garatzeko laguntza ekonomikoak, joko patologikoan sor daitezkeen ohiturei edo jokabideei sustagarria kentzera bideratutakoak, arreta berezia jarriz kolektibo ahulenei, hala nola adingabeei edo adimen-gaitasunak mugatuta dituzten pertsoneri.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Aurrekontu-konpromisoa: 200.000 €/ Aurrekontu-gauzatzea: 80.150 €

9 eskaera aurkeztu dira; guztiak onartu dira. Horietako bost ludopatiak eta bestelako adikzioak tratatzen eta prebenitzen dituzten erakundeei dagozkie; horietako bi gizarte-ekimeneko gizarte- eta hezkuntza-arloko elkarteei dagozkie, eta beste bi informazio-teknologiak behar bezala erabiltzeko elkarte batekoak dira. Azken horretatik, azpimarratu behar da proiektuetako bati uko egin diotela epe barruan egin ezin dutelako.



Zortzi proiektu gauzatu dira. Arauaren helburuetan sartzen dira guztiak, bakoitza bere lurralde- eta gizarte-eremuan: joko patologikoari buruzko informazioa eta prebentzioa ematea; joko problematiko, gehiegizko edo patologikoaren arrisku-egoera baten adierazleen ezagutza sustatzea; mendekotasun-potentzian eragiten duten faktoreak; teknologia berrien arriskuak ezagutzea; eta joko patologikoaren aurkako borrokan esperientziak eta baliabideak zabaltzea.

Elkarte onuradunetako lau 2020an ere aurkeztu ziren deialdira, eta aurreko urteetan hasitako proiektuei jarraipena eman diete.

Proiektuak justifikatzeko memoria guztietatik esan daiteke 6.285 pertsonak baino gehiagok hartu dutela parte jardueretan, esate baterako: hitzaldiak, tailerrak, esperientziak partekatzea, materialak lantzea... Ildo horretan, materialen dibulgazioari esker, pertsona gehiago iritsi dira. Izan ere, proiektu askok web-argitalpenak, aldizkariak eta liburuxkak dituzte.

Topaguneak askotarikoak izan dira, hartzaileen izaeraren arabera: eskola, gazteen topalekuak, elkarteen lokalak edo ekipamendu soziokulturalak. Pandemiak sortutako egoera dela eta, askotan jarduerak eta kontaktuak online egin behar izan dira.

Proiektu horietan erabiltzen diren eta horietan oinarrituta egiten diren materialak joko patologikoaren berri emateko eta horri aurrea hartzeko erabil daitezkeen elementuak dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Programa kopurua	6	9
Aurkeztutako eskariak	6	9
Onartutako eskariak	6	9
Berriz aurkeztutako programak/ jasangarritasuna	6	4
Programa berriak	1	5
Parte hartzaile kopurua	1200	6285
Talde zaugarrietako parte hartzaile kopurua (adingabeak, gazteak, gaitasun urridun pertsonak...)	1000	6000*
Giza baliabideen kopurua (hezitzaileak, irakasleak... boluntarioak zenbatu gabe)	17	258**
Kolaborazioak beste erakunde batzuekin (administrazioak, ikastetxeak, gizarte erakundeak, enpresa pribatua...)	10	20***
Argitalpen kopurua (web/ aldizkariak/ gidak/ panfletoak...)	5	7****

* Irabazi-asmorik gabeko erakundeek beren proiektuen justifikazioetan emandako zenbakiak batuz ateratzen dira datuak. Hori dela eta, pertsona taldeen banakapena estimagarria da.

** Ikasleen % 80 ikasleak dira, eta gainerakoak gurasoak edo irakasleak.

*** Kontuan hartuta erakunde guztiek ohiko tratua dutela beste erakunde batzuekin eta administrazioarekin, ez dira banakatu elkarre guztien kontaktu guztiak.

**** Kontuan hartuta erakunde guztiek zerbait argitaratu dutela, argitalpenak ez dira zehatz-mehatz jasotzen.